

txintxarri

Herriko jai, kolorez blai!

MERKEALDIA

2MÓ 199€

LEHEN 229€

PROGRESIBOAK

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA



eskatu
hitzordua
online

MULTIÓPTICAS
8. urteurrena

ESKERRIK ASKO

GUREKIN JAIEZ GOZATZEAGATIK!

BLUSA ERANTZI
ETA DATOZEN
SANPEDROAK ARTE!

**EUSKARA ETA KULTURA
BIDELAGUN!**



Ttakunek antolatutako egitasmoetan aritu zaretenoi eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, batez ere bolondres bezala ibili zaretenoi. Bejondeizuela!

GORA LASARTE-ORIA!



Argazki lehiaketa

San Pedro Jaietan Sorgin Dantza, erraldoi eta buruhandiak eta kale ikuskizunetan argazki politak atera dituzu? Ba adi! Argazki lehiaketa hirukoitza antolatu dugu eta! Hiru kategorია izango dira eta aipatu jarduerekin lotura duten argazkiak bidali beharko dituzte partaideek. Multzo bakoitzeko irudi bana (originalak, norberak ateratakoak) aurkeztu ahalko dute herritarrek.

Lehiaketan parte hartzeko azken eguna uztailaren 9a izango da, igandea. Argazkiak bidaltzeko bide hauek izango dituzte parte hartzaileek: txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikoa edo 688 68 35 10 telefono zenbakia, WhatsApp bidez. Botoak emateko epea uztailaren 10etik 12ra bitartekoa izango da, bi egunak barne. Kategoría bakoitzeko irudi bozkatuenaren egileak Avenida taberna-jatetxeko bi menu irabaziko ditu. Animatu eta parte hartu!

Argazkiak zuzenean igotzeko eskaneatu QR kode hau:



Bidali
txintxarri@ttakun.eus
helbide elektronikoa edo
688 68 35 10 telefono
zenbakia, WhatsApp bidez

SARIAK:

3 MENU BIKOITZ



**Sorgin dantza
kategoria**



**Buruhandi eta
erraldoien kategoría**



**Kale musika
kategoria**



txintxarri

*Inozko bisita kopuru onena izan du TXINTXARRI.EUS-EK ekainean! Eta hori, zuei esker da, irakurleok!
Mila-mila esker gurekiko duzuen konfidantzagatik!*

Jarrai dezagun bidea elkarrekin egiten!
www.txintxarri.eus



Ekainaren 27a

Akelarrearen hasiera

Sanpedroak baino egun bat lehenago hasi ziren Sorgin Jaiak. Azken bi hamarkada pasatotan egin duten lez, aurten ere aisialdi eredu alternatiboaren aldeko aldarria zabaldu dute, tentuz aukeratutako osagaien egindako edabe eta akelarre erraldoi baten bidez.

Programako lehen jarduera, ohi bezala, kuadrillen jaitsiera izan zen. Isla plazan elkartu eta erdiguneko zenbait tabernatan geldialdiak egin zituzten, basoak beste eta gustura dantzatzeko. Orubete inguruko bidearen ostean iritsi ziren Okendo plazako sorgin gunera, aurtengo omenduei aitortza beroa egitera: Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Ez ziren hiru pailazo horiek bakarrik azaldu, ordea, baita Takolo eta Katxiporretako lankide ugari ere. Hunkituta, aintzatespen hunkigarria jaso, eta, ostean, nola ez, dantzan jarri zituzten sorgin gunera bertaratutakoak: *Saturnino*, *Maita zaitut* eta Jalgune elkartearen *Pausoka*, *pausoka* abestiekin hankaz gora jarri zuten Okendo, besteak beste. Amaitu aurretik talde argazki erraldoia atera zuten. Hilaren 27koa izan zen aurreneko parranda gaua. Okendoko oholtzara igotzen lehena Kinada talde lasarteoriatarra izan zen. Argitaratu berri du disko berria, *Etsaiarekin dantzan*, eta lan hori aurkeztu zuen, klasikoagoak diren kantuak jotzeaz gain, *Deiadar* eta *Ezin dut gehiago*, beste batzuen artean. Ondoren, Ameba talde usurbildarraren txanda izan zen, eta, ohi bezala, emanaldi indartsua plazaratu zuen Okendon bildutako taldeen aurrean. Azkenik, parranda gaua ixteko, DJ Fantasiak dantzan jarri zituen parranderoak.

Bestalde, egun horretan, goizean, aisialdi eredu kapitalisten gainean hausnartu zuten zenbait herritarrek, Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) antolatutako sanpedroetako egitarauaren barruan.



Gazte Koordinadora Sozialistako (GKS) kideek 'Aisialdi eredu kapitalistak aztertzen' hitzaldia egin zuten. TXINTXARRI



Isla plazatik abiatu ziren herriko kuadrillak, musika ekipoa eta banderak hartuta. TXINTXARRI



Erdiguneko tabernetan geldialdiak egin zituzten, besteak beste, dantzatzeko. TXINTXARRI



Jendetzak parte hartu zuen Sorgin Jaiak-en kuadrillen jaitsieran. TXINTXARRI



Pirritx, Porrotx eta Marimotots ez ezik, Takolo ere animatu zen txupinazoaren festara. TXINTXARRI



Pailazoen, nola ez, mugimenduan jarri zituzten Okendoko sorgin gunera bertaratutakoak. TXINTXARRI



Sorgin Jaiak-eko kideek festetako zapiak oparitu zizkieten pailazoei. TXINTXARRI



Katziporretako lagunek talde argazki erraldoia atera zuten lasarteoriatarrekin. TXINTXARRI



Txupinazoa jaurti eta berehala ireki zituzten txosnak. Jendetza ibili zen bertan, egun guztietan. TXINTXARRI



Kinada talde lasarteoriatarrek 'Etsaiarekin dantzan' lan argitaratu berria aurkeztu zuen. TXINTXARRI



Ameba talde usurbildarra izan zen Okendoko oholtzara igotzen hurrengoa. Kontzertu indartsua eman zuen. TXINTXARRI



DJ Fantasiarena izan zen lehen parranda gaueko azken kontzertua. TXINTXARRI

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA



aldizkariak
IRUDI KORPORATIBOA

kartelak
ESKU-ORRIAK

katalogoak
AGENDAK EGUTEGIAK
koadernoak

PAPELERIA
liburuak

antza

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA · Tel. 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



Ekainaren 28a

Sanpedroen lehen eztanda, goizean

Gure Patintxi berrien eguna eta urte osoko pazientzia etxean uztekoa izan zen hilaren 28a; San Pedro Jaien hasiera. Ohi bezala, haurrak izan ziren protagonista goizean, udaletxe zaharretik jaurtitako txupinazoarekin. Hori baino lehen, Maialen Chourraut kiroldegira joan ziren asko, bertan antolatutako ur jolasetan parte hartuz. Geroxeago, festaren eztandaen aurretik, animatu ziren batzuk erraldoi, buruhandi eta txarangekin batera dantzatzera, erdigunean zehar.

Urduri eta hunkituta, hunkituta eta urduri, aitortza sortako lehenengoa jaso zuen Txema Valles Viguera kazetari erretiratuak, udaletxe zaharrean. Eguerdiko hamabiak puntuan zirenean, balkoira atera, prestatuta zuen hitzalditxoa bota eta etxafuegoa piztu zuen. Zeruan lehertu zenean, txupinazoa ikustera joandako herritarrek eztanda egin eta kantuan eta dantzan hasi ziren, udal ordezkariak jaurtitako koloretako pilotekin jolastu bitartean. Orduan atera ziren balkoira aurtengo 65 urtetik gorako bi pertsona maitagarriak, Gure Patintxiak, Milagros Etxaniz eta Sebastian Kerejeta. Honezkeroko ohiko bilakatu den aitortza ekimen hori Ttakun Kultur Elkarteak aurrera eramaten du, Bea Egizabal umoregilearen laguntzarekin.

Behin jaiak hasita, programako jardueretaz gozaten hasi ziren herritarrak, hala nola, *Dale Ramón* kale antzerkiarekin edota Ttakun KEk antolatutako makarroi janaz eta ur jolasez.



Bea Egizabal umoregileak gidatu zuen Patintxiei egindako aitortza ekitaldia. TXINTXARRI



Gure Patintxiak, izendatu berritan, senideekin, udalbatza aretoan. TXINTXARRI



Maialen Chourraut kiroldegira joandako haurrak, ur festari ekiteko irrikaz. TXINTXARRI



Txupinazoaren ostean, Gure Patintxiak balkoira atera ziren, herritarrengana. TXINTXARRI



Oaintxe in deul txarangoek musikari harrobi ederra dute. TXINTXARRI



Haur kuadrilla honek primeran pasa zuen erraldoi eta buruhandien kalejiran zehar. TXINTXARRI



Txema Valles Viguera kazetari erretiratua izan da aurtengo omendua. irudian, goizeko txupinazoan. TXINTXARRI



Joselontxo txarangarekin kalejira joan ziren Basaundi auzora. TTAKUN KULTUR ELKARTEA



Goizeko txupina, lehertzeaz. Batzuek belarriak tapatu zituzten, eztanda ez entzuteko. TXINTXARRI



'Dale Ramón!' antzeztan dutenek boluntarioak atera zituzten beraiekin aritzera. TXINTXARRI



Makarroiak bazkaldu ostean, ur jolasak egin zituzten Basaundi auzoan. TTAKUN KULTUR ELKARTEA

ELECTRICIDAD ARREGUI

Freskatu ezazu etxea eta gozatu uda!

600 85 75 86

www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

SABAIKO LANPARA HAIZAGAILU

KLIMATIZAGAILU

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



Dantza, festa eta aldarrikapena plazan

El Diario Vasco egunkarian makina bat kronikatan kontatutakoa bere azalean bizitu zuen Txema Valles kazetariak, goizeko pregoia ez ezik arratsaldekoa ere irakurri zuenean, udaletxeko balkoitik. Hunkituta, Lasarte-Oria "munduko herririk onena" dela errepikatu zuen Okendo plazan bertaratu zirenen gozamenerako. Horrez gain, sanpedroak elkar zaintzen eta errespetuz bizitzeko deia egin zuen. Hitzartzea amaituta, pizgailua hartu eta suziria jaurti zuen zerura.

Begira zituenen artean zeuden Sorgin Dantzako dantzariak. Ohi bezala, Oria auzotik abiatu eta herria zeharkatu zuten, bidean dantzatzeko eta atsedean hartzeko geldialdi batzuk egin ostean. Txistularien taldea eta Julen Basterra gitarra jotzailea izan zituzten lagun. Azken saioa Okendon bertan egin zuten.

Helduen txupina jaurti eta gero erdigunea girotzera atera ziren Oaintxe in deul!, Joselontxo eta Goxo txarangak. Herritar ugari joan ziren haien atzetik, eta baita LOZET elkartearen erraldoi eta buruhandien konpartari jarraitzen ere. Beste batzuek nahiago izan zuten Elizatze plazara joan eta Mario Ezno txotxongilolariaren ikuskizunaz gozatu.

Bitartean, Sorgin Jaiak-ek bigarren eguneko programazioa aurrera eraman zuen. Mejillon Tigre kolektiboak *Hitz esana* antzezlanaren emanaldia egin zuen Gaztelekuan. 20:00etan, sexu askapenaren aldeko manifestazioa aurrera eraman zuen Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboak, Okendotik hasi eta erdigunean zehar. Iaz bezala, jende ugari bat egin zuen eragilearen aldarrikapenekin.



Leporaino beteta egon zen Okendo plaza, arratsaldeko txupinazoa jaurti aurretik. Ohi bezala,



Zortzikote txikiko eta helduko partaideak, elkarrekin, Orian, abiatu aurretik. TXINTXARRI



Txistularien taldeak eta Julen Basterra gitarra jotzaileak jarri zioten doinua Sorgin Dantzari. TXINTXARRI



Helduen txupinazoko suziria, zerura bidean. Eztanda egin zuenean lehertu zen festa, berriro. TXINTXARRI



Oaintxe in deul!, Goxo eta Joselontxo txarangetako kideak Okendotik abiatu ziren herria alaitzera. TXINTXARRI



Sorgin Dantzako dantzariak enparantza horretan egin zuten azken saioa. TXINTXARRI



Mario Ezno txotxongilolaria Elizatze plazan aritu zen. TXINTXARRI



Mejillon Tigre kolektiboak 'Hitz esana' antzezlaren emanaldia egin zuen Gaztelekuan. TXINTXARRI



Manifestariak aldarrikapen kartelak eta banderak eraman zituzten. TXINTXARRI



Kale Nagusia ere zeharkatu zuen sexu askapenaren aldeko manifestazioak. TXINTXARRI

MAITE

ESTETIKA ARETOA

zerbitzu mistoak

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektriko
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pultsatuarekin
- Beteleen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria



Erritmo anitzen dantza

Herri afaria eta mota ezberdinetako doinuak batu ziren San Pedro bezperako gauan. Danbor hotsek, zein musika emanaldi anitzek dantzan jarri zituzten herritarrak. Gauari hasiera emateko, herri afaria egin zuten Okendo plazan. Oilasko errea plater nagusi zuen otorduaz gozatu zuten 90 bat herritarrek.

ATLO danborradako kideek hartu zuten plaza ostean. Omenaldia egin zieten 30 urtez parte hartu duten herritarrei. Zendutako kideak ere gogora ekarri eta *Agur Jaunak* jo zuen txarangak. Jarraian, *Lasarte-Oriako ereserkia*-ren koreografia ikusi zuten estreinakoz, Maider Oartzabal Ziganda herritarrak egina. Hainbat pieza plazan jo eta herriko kaleetatik barrena itzulia eman zuen danborradak.

Gaua luzatzeko, herritarrek aukera ezberdinak izan zituzten. Isla plazan, Puro Relajoren musika mexikarraz gozatu zuten. Oriarte Landaberriko gazte gunean, Dj Markelin-ek dantzan eta abesten jarri zituen hurbildu ziren gazte eta ez hain gazteak. Sorgin Jaiak-en eskutik, berri, euskal pop elektronikoa eta rock alternatibo doinuak nahastu ziren Okendo plazan. Mirua talde tolosarraren eskutik euskal hyperpop melodiekin ederki dantzatu zuten gazteek. Ostean, Lukiek mungiatarrek grunge soinu gordinak, erritmo psikodelikoak, rock klasikoaren influentziak, post punkaren soinu bitxiak edota gaur egungo traparen autotunea dituzten kantuak eskaini zituzten gaua luzatu nahi izan zutenentzat.



Afari herrikoiak 90 bat herritar batu zituen Askatasunaren parkean. TXINTXARRI



ATLOko zuzendaritzak 30 urtez danborradan parte hartu duten kideei oroigarriak banatu zizkien. TXINTXARRI



Okendo plaza utzi eta herriko kaleetatik barrena ibili zen danborrada. TXINTXARRI



Maider Oartzabal Ziganda koreografoak Lasarte-Oriako ereserkiaren dantza estreinatzen zuten. TXINTXARRI



Udaletxe zaharra izan zen danborradaren ibilbideko geldineetako bat. TXINTXARRI



Adin ezberdinetako herritarak bildu ziren Puro Relajo taldearen doinu mexikarrak entzun eta dantzatzera. TXINTXARRI



Dk Markelin-ek Oriarte Landaberriko gazte gunea jauzika jarri zuen. TXINTXARRI



Sorgin Jaietako bigarren gauean, Mirua talde tolosarrak eta Lukiek mungiatarrek euskal doinuak zein hyperpopa eta rock alternatiboa nahastu zituzten Okendo plazako oholtzan. TXINTXARRI



I O
S U

**Serigrafia
Tanpografia
DTF**

Kamiseta inprimategia |
Pegatinak | Iragarki nahiz
industria sarigrafia |
laneko arropak | enpresa
opariak | boligrafoak |
txiskeroak | laser merkaketak...

serigrafiaiosu.com
Ugaldea polig. 36 USURBIL Tel: 943-37 19 54



*Festak ondo pasa
izana espero dugu!*

Kale Nagusia 40
Tel: 943-36 39 64
LASARTE-ORIA



Ekainaren 29a

Zaindariaren eguna

Joselontxo txarangak esnatu zuen Lasarte-Oria goizean. 10:00etarako hitzordua jarria zuten, eta puntual-puntual ekin zioten herria girotzeko lanari. Ordubate geroago, 11:00etan hasi zen San Pedro Eguneke Meza Nagusia; San Pedro Elizan elkartu ziren fededunak. Otoitz egitearekin batera, Alboka abesbatzak zenbait abesti kantatu zituen, eta Erketz Euskal Dantza Taldeko kideek, ohi bezala, aureskua dantzatu zuten.

Xumela koruko lagunak, berriz, 11:30ean abiatu ziren Sagardotegi plazatik, eta Oaintxe In Deu! txarangak lagunduta giro ederrean abestu eta dantzatu zituzten hainbat abesti ezagun.

Herri kirolek ere ez zuten hutsik egin. Elizatze plazan elkartu ziren kirolariak, eta denek ala denek erakustaldi bikainak egin zituzten. Aizkolariak izan ziren lehenak, eta horien atzetik ingudearekin aritu ziren. Harri jasotzen ere trebetasun ederra erakutsi zuten.

Goizeko egitarauari amaiera eman eta bazkaltzeko tarte heldu aurretik, omenaldia egin zioten Txema Valles Viguera kazetari erretiratuari. Zero Setteko akordeoilariak eta Lasarte-Oriako erraldoiek egin zioten harrera omenduari. Musikariak pare bat musika pieza jo, eta dantza egin zuten gero erraldoiek. Ez horiek bakarrik, ordea. Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzariak ere agertokira irten baitziren, eta aureskua dantzatu zioten Vallesi. Akordeoi jotzaileek ere eskaini zioten doinu berezi bat. Ostean, Agustin Valdivia alkateak hartu zuen hitza. Vallesen bizitzaren hainbat zertzelada kontatu, eta, finean, herritarren 40 urtetako dedikazioa eta egindako lana eskertu eta aitortu zizkion. Lasarte-Oriako zapia jarri zion lepoan, eta Vallesek hartu zuen hitza gero. Bere ibilbide profesionalaz hitz egin zien aretoan bildutako herritarrei, eta, nola ez, gogoan izan zituen lau hamarkadetan ondoan izan dituen senide, lankide, eta lagun guztiak, baina horien guztien artean, emaztea, bi alabak eta pasa den hilabetean zendutako Imanol Lizardi laguna bereziki.

Hitzartzea amaituta, omenduaren oroigarria jaso zuen alkatearekin eskutik, eta bertaratu ziren gainerako udal korporazioko kideekin batera, Lasarte-Oriako ereserkia abestu zuten, eszenatokian. Aretoa utzi aurretik, herritar ugari zorian agur eta maitasun keinu ugari jaso zituzten; pozarren eta eskertuta agertu zen herritarra.



Fededunak, ohi bezala, San Pedro Elizan batu ziren zaindariaren egunean otoitz egiteko. TXINTXARRI



Meza Nagusiaren amaieran, Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzariak aureskua dantzatu zuten. TXINTXARRI



Joselontxo txarangak esnatu zuen San Pedro Egunean Lasarte-Oria; musika pieza alaiak jo zituzten. TXINTXARRI



Xumela Koruak kantu-jira saio ederra egin zuen; Porrotx pailazoa izan zen beraiekin Okendon. TXINTXARRI



Ederki gozatu zuten herriko haurrek Sorgin Jaiak-ek antolatutako Bizipoza Akelarrean, sudurgorriekin. TXINTXARRI



Sorgin Jaietako kideak agertokian Porrotx eta Marimototsekin dantzan. TXINTXARRI



Harri jasotzaileak erakustaldia hasi aurretik probaldia egiten. TXINTXARRI



Herri kirol zale ugari elkartu zen Elizatze plazan aizkolari eta harrijasotzaileen erakustaldiak ikusteko. TXINTXARRI



Erketz EDTko dantzariak Txema Vallesi aureskua dantzatzen, bere omenaldian. TXINTXARRI



Txema Valles, omendua. TXINTXARRI



Txema Valles udal ordezkariekin, oholtzan, Lasarteko ereserkia abesten. TXINTXARRI



Gora San Pedro jaiak!
Aupa Lasarte-Oria!





Gorputza mugituz

Eguraldi iragarpenengatik, goiz eta arratsalde, Loidibarreneko pilotalekua haur parke bilakatu zen. Adin ezberdinetako haur eta gazteek puzgarri eta mahai jokoez gozatu zuten. Asko barraken gertutasunaz baliatu ziren parketik atera eta, hala nola, igelan, eltzean, ohe elastikoetan edo autotxokeetan ibiltzeko.

Okendo plazara gerturatuz gero, sardina usaina nabari izan zen arratsalde osoan zehar. Aterpea elkarteko kideek urtero bezala sardin jana antolatu zuten. Jana bakarrik ez edana ere izan zen. Ttakun Kultur Elkartearen eskutik Lasarte-Oria inguruko sagardo ezberdinak dastatu ahal izan zituzten herritarrek. Eta bapto jan ostean, muxiko eta plaza dantzekin janaria jaisteko aukera ere izan zen. Plaza dantza egitasmoko zein Erketz EDTko kideek eta hainbat herritarrek ederki mugitu zituzten oinak eta gorputzak doinuen erritmora.

Martxa ederra izan zuten baita ere gazte gunera hurbildu ziren haur, gaztetxo eta gurasoek. Euskal doinuak eta nazioartekoak nahastuz, dantza saio ederra egin zuten guztiek.

Sorgin Jaietan, aldiz, kirol saioa ederra egin zuten gazte kuadrillek bazkariaren ostean. Bosteko taldeetan futbol txapelketa berezia jokatu zuten; kartulinazko kono bat aurpegian jarria zutela lehiatu ziren. Ez zen erraza izan konoaren zulo txotik baloia non zegoen asmatzea. Hala ere, golak egitea lortu eta arratsalde pasa ederra egin zuten neurketa ezberdinak ikusiaz.

Kirolaren ostean, Elektropottotte taldearen emanaldirako prestatzeko tartea izan zuten. Okendo plazan hasi zuen emanaldia elektrotarangak. Lehen doinua jo eta San Pedro Jaietan duela urtebete euren lehen emanaldia egin zutela azpimarratu zuten. Taldeak eskerrak eman nahi izan zizkien urte honetan zehar lagun izan zituzten elkartei, baita Sorgin Jaiak-i ere, eurekin gogoratzeagatik. Lehen euri tantak bota arren, ikusleak ez ziren mugitu. Kale Nagusira, Ilargi taberna parera mugitu eta bertan atertu arte itxaron zuten euren egitarauarekin jarraitzeko. Erritmo biziko hainbat doinu eskaini zituzten inguratu ziren herritarrek eta kalea musikaz beteaz.



Sorgin Jaietako gazteek futbol txapelketa berezia jokatu zuten sorgin konoekin. TXINTXARRI



Aterpea elkarteko kideek sardinak erretzen lan egin zuten arratsalde osoan zehar. TXINTXARRI



Lasarte-Oria inguruko baserrietako sagardoa dastatu zuten herritarrek. TXINTXARRI



Herritarrek ez zuten huts egin eta ilaran itxaron ostean, sardina goxoak jan zituzten. TXINTXARRI



Sabelak bete eta gero, dantzan aritu ziren Okendo plazan bildutako herritarrek. TXINTXARRI



Adin guztietako herritarrek aurten ere ederki gozatu dute barraketan. TXINTXARRI



Loidibarrengo pilotalekua haur parkea bilakatu zen eta ederki ibili ziren haurrak jolasean. TXINTXARRI



Haur eta gazteek ederki dantzatu zuten haurrentzako disko festan. TXINTXARRI



Sorgin Jaiak-ek antolatuta, Elektropottotte elektrotarangaz gozatu zuten herritarrek arratsaldean. Okendotik Kale Nagusira euren bertsioak abestu eta dantzaten zuten jendez inguratuta egon ziren. TXINTXARRI



ARGAZKI ESTUDIOA · EZKONTZAK
UME ETA FAMILIA SESIOAK · BOOK
JAUNARTZEAK · HAURDUNALDIK
JAIO BERRIAK · PUBLIZITATEA · BIDEOA

Eztiphoto

WWW.EZTIPIPHOTO.COM/ WWW.LILIBAT.EUS
Golf enparantza 4 (behea). Lasarte-Oria
943 900 565 - info@eztiphoto.com





Bertsoekin hasi, punk eta rock-arekin bukatu

San Pedro zaindariaren eguna, nola ez, parranda eder batekin amaitu zuten herritarrek. Gaueko egitarauko lehen emanaldia bertsolariena izan zen, kultur etxean. Ane Labaka, Lierni Rekondo, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu eta Unai Iturriaga aritu ziren koplaka, Amaia Agirrek jarritako gaien bueltan, hitzekin dantzan. Une hunkigarrietako bat duela gutxi hil den Imanol Lizardi gogoratzean bititu zuten saiora bertaratutakoek.

LOZET elkartekoek, festa guztietan egin moduan, jostailuzko zezenekin entzierro txiki bat egin zuten eta zezensuzkoak Kale Nagusira atera ondoren. Gezurretako animalia horren suziri guztiak itzali zirenerako, herritar ugari zebiltzan dantzan Isla plazan, Duo Imperial bikotearekin, eta baita Okendo plazako sorgin gunean ere, Lizartxo erromeria taldearekin, Oñatitiki etorritako "zazpi gazte, zoro eta askerekin", euren sare sozialetan zehaztu duten bezala. Adjektibo horiei ohore egin eta berehala bete zuten txosnetatik oholtzara arteko tartea.

Erromeria amaituta giharrak eta eztarriak bero zituztela hasi zen The Noise Makers taldearen kontzertua: ia arnasik hartzeko astirik utzi gabe jo zituzten 80. hamarkadako talde ezagun ugariaren punk eta rock abestiak. Hirugarren juerga eguna goizaldera arte luzatu zen DJ La Fulanaren doinuekin.



Zaleek dena eman zuten jaietako ostegun gaueko kontzertuetan. TXINTXARRI



The Noise Makers boskoteak 80. hamarkadako talde ezagun ugariaren rock eta punk abestiak



Bertsolariek adi-adi entzun zituzten Amaia Agirre gai jartzailearen jarraibideak. TXINTXARRI



Duo Imperial izeneko bikoteak Isla plazan eman zuen kontzertua. TXINTXARRI



Duo Imperial taldearen kontzertuak iraun bitartean ez zen geldi egon kuadrilla hau. TXINTXARRI



bertsionatzen ditu. Hankaz gora jarri zuen Okendo plaza sanpedroetan. TXINTXARRI



Oñatitik etorritako Lizartxo taldeak ireki zuen gaua sorginentzat. TXINTXARRI



Giro ederra izan zen sorgin gunean jaietako ostegun gauean ere. TXINTXARRI



Aurtengo berrikuntzetako bat izan da LOZETek antolatutako entzierrotxo sorta. TXINTXARRI



DJ La Fulanarekin gaueko ordu txikietara arte dantzatu zuten parranderoek. TXINTXARRI

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

jarraitu herriko albisteak sarean



www.txintxarri.eus



Ekainaren 30a

Kirola ere, protagonista

Goizean esku pilotako San Pedro Jaietako txapelketa jokatu zen. Benjamin, alebin eta infantil mailako finaleraino iritsi ziren frontoira hurbildu ziren herritarrek. Benjamin mailan Xuhar Gilek eta Peru Azkaratek Etxahun Gartzia eta Unai Olazabal garaitu zituzten. Alebinetan Unax Urdangarin eta Irai Jauregi bikoteak Ekhi Iparragirre eta Lier Garmendia bikoteari gailendu zitzaion eta infantil mailan, Eñaut Huizi eta Oier Jauregi nagusi izan ziren Lier Fernandez eta Itxaso Iparragirre bikotearen aurka. Jose Solano sari berezia ere banatu zuten. Aurten Itsaso Iparragirrek eraman du.

Isla plazan ere giro ederra izan zen. Puzgarriak, mahai jokoak edo xaboi burbuilak... haur eta gaztekoek aukera ezberdinak izan zituzten goiz pasa ederra egiteko. Eguedian, aldiz, Biyak Bat elkarteko kideek gorputza ederki mugitzen dakitela erakutsi zuten. Melodia eta erritmo ezberdinetako doinuak ederki dantzatu zituzten erakustaldian.

Errekortarien erakustaldiak eman zion hasiera ostiral arratsaldeko egitarauari. 17:00etarako jendez lepo zegoen Sasoeta ikastetxeko patioa. Ordubetik geroago abiatu ziren LOZETeko erraldoi eta buruhandiak Blas de Lezo kaletik, eta ederki astindu zituzten gaztekoen bizkarrak. Bien bitartean, pilota zaleek Loidibarren pilotalekua bete zuten. Bi partida jokatu dituzte; lehenengoan, Arrillaga eta Erasun, Larrarte eta Mendizabalen aurka aritu ziren. Lehenak izan ziren garaile. Horien ostean, berriz, Arteaga eta Irusta, eta Artetxe eta Garmendia aritu ziren. Erakustaldi ederra egin zuten bi bikoteek, baina Arteaga eta Irusta izan ziren txapelketa. Jaizkibel plazan, aldiz, 'Mundo Costrini' kale antzerkia ikusteko parada izan zuten bertan bildutakoek, eta Andatza plazan, barre ugari entzun dira iluntzean; Hu-Ha! Remember Festa-k hartu zuen eta hori hasi bitartean, Mikel Bermejok bakarrizketa saioa eskaini zuen.



Intza KEK antolatutako esku pilotako San Pedro Jaietako txapelketako finalak jokatu zituzten gaztekoek. TXINTXARRI



Biyak Bat elkarteko kideek lerroko dantza erakustaldia egin zuten. TXINTXARRI



Isla plazako arkeria hurbildu ziren haur, gazte eta gurasoak. Besteak beste, xaboi burbuilak egiten ederki igaro zuten goiza. TXINTXARRI





Jende ugari bildu zen Sasoeta ikastetxeko patioan, errektoriaren erakustaldia ikusteko. TXINTXARRI



LOZETeko erraldoi eta buruhandiak herriko kaleetan barrena ibili ziren haurren bizkarrak astintzen. TXINTXARRI



Pilota txapelketak ez du hutsik egin aurten ere; zaleez bete zen Loidibarren pilotalekua. TXINTXARRI



Bertsolariak, sorgin gunean bertso poteoan. TXINTXARRI



Herritarrek 'Mundo Costrini' antzezlanaz ikusten. TXINTXARRI



Presoen etxeratzea eskatzeko manifestazioa egin zuten herrian zehar. TXINTXARRI



Paella goxo hau jan zuten elkartean afarian. TXINTXARRI



Mikel Bermejoren bakarrizketa saioa. TXINTXARRI

Barruan duzun artista ateratzeko garaia da

Zatoz eta parte hartu SANTA ANAKO PARODIAN

Paperen banaketa: Uztailaren 10ean, 18:00etan Manuel Lekuona kultur etxean
Entseguak: Uztailaren 10tik 14ra eta 17tik 21era 18:00etatik 20:00etara

943-37 14 48
kultura@ttakun.eus



Gaua, dantzaz dantza

Arratsalde luzearen ondoren, ilundutakoan hasi ziren afari ondoreneko ekitaldiak. Udaletxe zaharraren aurrealde eta inguruetan jendetza pilatzen joan zen entzierroa abiatzeko zain. Gaztetxo askok beroketa egin zuten zezenen aurrean eta atzean korrika, gero zezensuzkoarekin errepikatu baitzuten. Oihu alaiak nagusitu ziren kalean, errepideaz gain, espaloian barrera ibili zirenean. Sua itzalita eta gaua piztuta, ostiralekoak protagonista bakarra izan zuen: musika. Parrandarako eta dantzarako gogoz zeudenek estilo askotariko soinu banda aukeratzea izan zuten, horretarako txoko aproposera joan besterik ez zuten behar izan.

Erritmo latinoamerikarrak eta dantza lasaia nahiago zituztenek, Isla plazan izan zuten euren gustuko emanaldia, Azabache laukotearen eskutik. Agertoki aurrean banaka, binaka eta taldean oinak mugitzera animatzen joan ziren saioak aurrera egin ahala. Okendo plaza euskal musikaren aterpe izan zen bi eskaintza oso bestelakorekin: Neomak zazpikotearen folk abangoardista eta Zetak taldearen pop elektronikoa. Bi zuzeneko indartsuek zabalgunea bete zutenen arreta eskuratzeaz gain, dantzan ere jarri zituzten zenbait unetan. Pello Reparazek horretarako asmoa adierazi zuen kontzertuari ekitean, eta zalantzarik gabe lortu zuen. Baita bertaratutakoak aztoratzea ere, haien artera jaitsi zenean.

Gazteenek Oriarte Landaberriko patioa izan zuten dantzaleku. Txolas DJaren saiora jendetza joan zen eta ez ziren gutxi izan kanpoan gelditu zirenak. Hesiaren beste aldean itxaron zuten tarteren bat egitea, baina berdin-berdin festa giroaz gozatzu. Adinean nagusiago direnek gaztetasunera eta iraganera jauzi egiteko parada izan zuten Andatza plazan. Arratsaldean abiatu zen Hu Ha jaialdia 1990eko hamarkadan diskoteketan entzuten ziren doinu ezagunekin bete zuen saioaren zati handi bat eta nekatu arte astindu zuten gorputza han bildutakoek. Batzuen abilezia ikusita, berezko trebeziaz gain, garai batean horretan gogoz saiatu zirela pentsatzekoa da. DJak eta zuzeneko musikarekin batera, argiek, suak eta su artifizialek osatu zuten ikuskizuna.



Oriarte Landaberriko patioa, Isla eta Andatza plazak estilo desberdineko dantzaleku bilakatu ziren. TXINTXARRI



Entzierroan eta zezen suzkoen inguruan korrika hasi zuten gaua herritar askok. TXINTXARRI



Neomak taldeak zuzeneko indartsu eta bizia eman zuen jendez betetako Okendo plazan. Zazpikoteak ikuskizun bikaina eman zuen oholtra gainean. TXINTXARRI



Adin guztietako herritarrak erakarri zituen ostiral gaueko musika eskaintzak. TXINTXARRI



Zetak taldean dantzan jarri zituen kontzertuaz gozatzera bertaratutako asko. TXINTXARRI



Uztailaren 1a

Indarrak berreskuratzen

Lasarte-Oriako txistularien doinuek eman zioten hasiera larunbata goizari eta gaupaseroren bat ere batu zitzaizen kalejirako momenturen batean. Goiz osoan zehar herriko txoko ezberdinak alaitu zituzten euren doinuekin.

Erraldoi eta buruhandien konpartsak, lokaletik atera, eta Atsobakar auzora egin zuen bidea. Haur, gaztetxo eta guraso ugari bildu ziren eurekin eta lasterketa ederrak egin zituzten auzoko plazetan barrena. Erraldoiek ere dantza saio ederra egin zuten Ttiriki-Ttarraka eta herriko trikitalarien eskutik. Zahar etxeko kideei ere bisita egin zieten.

Lasaiago egon nahi zuten haur eta gurasoek Isla plazako haur parkea aukeratu zuten. Jokoetan, puzgarrietan eta parkean, batetik bestera ibili ziren hurbildu diren haurrak. Xirimiria egin arren, haurrek jokoan jarraitu zuten.

Giroa goibel egon arren, Askatasunaren parkean azoka izan zen eguerdian Sorgin Jaiak-en eskutik. Karpa azpian edo etxeko arkupean produktu ezberdinetako postuak izan ziren ikusgai.

Margoak, kamisetak, bitxiak, zeramikazko poteak, egurrezko jokoak eta jostailuak... Artisau eta artista ezberdinek egindako lanak erakutsi eta herritarrek erosi ahal izan zituzten. Liburuxka txikiak egiteko tailerra ere aurrera eramán zuten.



Lasarte-Oriako txistulariek herriko kaleak esnatu eta alaitu zituzten euren doinuekin. TXINTXARRI



Goiza lasai baina jokoan pasa zuten haur eta gaztetxoek, Isla plazan. TXINTXARRI



Askatasunaren parkean, Sorgin azokan denetarik aurkitu zuten herritarrek. TXINTXARRI



Buruhandi eta erraldoiak Atsobakar auzoan ibili ziren. Lasterketa ugari egin zituzten gazteek; ezustekoak ere eramán zituzten. Ttiriki Ttarraka eta Lasarte-Oriako trikitalarien laguntza izan zuten (goiko argazkia). TXINTXARRI



Haurrak protagonista

Andatza plaza gaztetxoan jolasleku bilakatu zen larunbat arratsaldean. Bi orduz, 13 urtetik gorakoek zenbait jolasetan aritzeko aukera izan zuten: puzgarriak, diaboloa, bideojokoak, futbolina... Batetik bestera ibili ziren, lagunekin lehiatu eta guztietan saiatzeko gogoz. Hala ere, haur danborrada izan zen bazkalosteko ekitaldi nagusia. Dozenaka haurrek makilak astindu eta gogotsu jo zituzten barrilak eta danborrak. Kale Nagusian hasi eta bukatu, ohiko ibilbidea egin zuten erdialdeko kaleetan barrena. LOZETeko erraldoiak lagun izan zituzten, hasieran eta bukaeran bina irudi jarrita, eta haur multzoen erdian musika jarri zuen konpartsa joan zen. Bide ertzetan, berriz, herritar ugari pilatu zen.

Ekimena amaitzeaz zirela abiatu zen Mexico Lindo mariatxi taldea Okendo plazatik. Udaletxe zaharraren inguruan emanalditxoa egin eta Ama Brigitarren komenturantz joan ziren jada ohiko bilakatu den geldialdia egitera. Guanajuato hirikoak dira mariatxiak eta leku bereko zenbait moja daude herriko komentuan. Eliza atarira irten ziren eta aurrez aurre jarrita kantatu zituzten lau abesti, horietako pare bat eskariak izan ziren, gainera. Dantzan ere egin zuten musikariekin batera doazen bi emakumeek. Talde argazki batekin agurtu ziren musikariak eta inguruan pilatu zen jendea beraiekin batera eraman zuten.

Egun bat lehenago hasi, egun bat lehenago bukatu. Akelarrea amaitzeaz bazen ere, jai giroari eutsi zioten larunbat arratsaldean. Bazkalosteko lehen jarduera patata tortilla txapelketa izan zen. Antolatzaileek emandako osagaiei beste zein gehitu (edo ez) erabaki zuten partaideek, eta guztira, hamasei dastatzeko lana izan zuten epaileek. Berdinketa ugari izan ziren, eta lehen postua aukeratzeko ere, bitan probatu behar izan zuten. Irabazlearen gazta zatia talde bakarrak eraman bazuen ere, askaritarako zer jan izan zuten denek. Sabela bete eta Ankoker taldearekin kalejiran joan ziren partaide edo ikusle izandako asko. Doinu alaiak gainera, beste asko batu zituzten Okendo inguruko kaleetan egindako bidean.



Kale ertzetan lasarteoriatar ugari pilatu zen haur danborrada ikusteko. Danbor jotzaile gazteak



Haur danborradako martxek danbor eta barril soinuekin bete zituzten erdiguneko kaleak. Dozenaka haurrek parte hartu zuten ia bi orduz luzatu zen desfilean. TXINTXARRI



Puzgarri, bideojoko, futbolin eta bestelakoetan jokatzeko aukera izan zuten nerabeek. TXINTXARRI



Mexico Lindo mariatxi taldeak ranchera ugari eskaini zituen bere ibilbidean. TXINTXARRI



makina bat argazkiren protagonista izan ziren. TXINTXARRI



Sorgin Jaiak-ek II. Patata Tortilla Txapelketa aurrera eramán zuten jaíen azken arratsaldean. TXINTXARRI



Parte hartu zuten hamasei taldeen artean patata tortilla onena egin zuenak irabazi zuten gazta. TXINTXARRI



Ama Brigitarren komentua aurreko emanaldia amaituta, mojekin argazkia egin zuen taldeak. TXINTXARRI



Ankoker taldearekin kalejiran joan ziren sorgindutako gazteak eta beste batzuk batu ziren bidean. TXINTXARRI



Jaietako gau luzeena

Uztaileko lehen eguneko parranda izan zen herritar askorentzat luzeena, gaupasarena. Sorgin Jaiak-ek aurten prestatutako programa ixteko, Rukula taldeak kontzertua eman zuen Okendo plazako arkupeetan, ohi bezala, ikus-entzuleengandik zentimetro eskas batzuetara eta euren begien maila berean. Duela gutxi argitaratutako *Traganarru* laneko abestiez gain, urte batzuk gehixeago dituztenak ere jo zituen Usurbil eta Lasarte-Oriako laukoteak.

Udalak talde hauen kontzertuak antolatuta zituen: La Guardia, Supersingles eta Star Ways. Lehenak eta hirugarrenak Okendo plazan jo zuten, ikus-entzule andana erakarrita; bigarrenak, aldiz, Isla plazan, herritar dezenteren aurrean. Ezagunagoak direlako, Granadatik etorritako taldeak (eskuineko goiko lehen argazkia) emandako mailak ez zuen inor harritu, baina bai Kataluniatik etorritako laukotearenak (ezkerreko beheko bigarren argazkia): Espainiar estatuko nahiz nazioarteko abesti ezagun ugariarekin nahasketa dantzagarriak egin (euskaraz ere bizpahiru kantu abestu zituzten) eta hankaz gora jarri zuten Okendo plaza. Sorpresa oso atsegina eraman zuten Okendora joandako parranderoek.

Kontzertu bataren eta bestearen artean, Dinbi Banda batukada taldearen erritmora erdigunean barrena ibili ziren herritarrek, 02:00etako zein 04:00etako saioetan. Eguna argitu eta oraindik parrandan zebiltzanek gosari goxoa dastatu zuten, txokolate beroa eta croissantak. Ondoren, xexenak ikustera joan ziren asko, txarangak lagunduta.



Okendo plaza leporaino bete zuten La Guardia taldea ikustera joandako zaleek. TXINTXARRI



Rukula taldearen kontzertuak itxi zuen aurtengo Sorgin Jaietako egitaraua. TXINTXARRI



Supersingles taldeak dantzan jarri zituen Isla plazara bertaratutako lasarteoriatarrak. TXINTXARRI



Star Ways taldeak askotariko bertsoak oholtzaratu zituen Okendon. TXINTXARRI



Dinbi Banda batukada taldearen erritmora ibili ziren herritarrek, erdigunean barrena. TXINTXARRI



Taula Xake taldeak antolatutako aldi bereko txapelketan parte hartu zuten zenbait herritarrek. TXINTXARRI



Euriak euri, urteako jolasetan ibiltzeko aukera ez zuten galdu haur eta gaztetxoek. TXINTXARRI



Extremadurako doinu eta zaporea ekarri zuten migeak eta Virgen de Guadalupeko taldeak. TXINTXARRI

Uztailaren 2a

Euriak ez zuen festa eten

Eta ustekabean ia, aurtengo San Pedro Jaien azken eguna heldu zen; eta inork nahi ez zuen osagai bat ekarri zuen, gainera: euria. Lehen ordutik ia etengabean erori zen eta zenbait jarduera moldatzea behartu zituen antolatzaileak. Taula Xake Taldeak aldi bereko xake lehiaketa aurrera eraman behar zuen Okendo plazan, baina aterpe faltan, Askatasuna parkeko etxebizitzaren arkupeetara lekualdatu zuten. Nahi izan zuten guztiek aukera izan zuten goizean zehar eseri, eta jokatzekoa. Hasieran taldeko kide batek aldi bereko partidak jokatu zituen, geroago, ordea, bertaratu zirenak elkarren artean aritu ziren. Beste arkupe batean –udaletxe azpikoan, hain zuzen ere– topatu zuten beharrezko babesa Extremadura Etxeko lagunek; izan ere, migak prestatzeko txoko hori erabili baitzuten. Prest zeudenean, ardo zuri edo beltzarekin batera banatu zizkieten ilara luzea osatu zuten herritarrei. Plazako agertokian, berriz, Gasteizko Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeko dantzari eta abeslariak erakustaldia egin zuten. Mokadu goxoa dastatu bitartean aterpetik jarraitu zuten saioa gehienek, nahiz eta zabalgunera irten ziren gutxi batzuk ere. Zerutik eroritako urak ez zituen batera kezkatu Andatza plazan batetik bestera ibili ziren haur eta gaztetxoak, izan ere, uretako jolasen txanda izan baitzen. Isla plazan ere euria ez zen oztopo izan Voces del Ebro koruaren jotak entzutera joan zirentzat. Urrutitik begira hasi, eta poliki-poliki agertokira hurbiltzen joan ziren herritarrek, musikari kasu egiteari utzi gabe. Tximistarreta parkeko herri bazkaria, ordea, zapuztu zuen eta bertan behera gelditu zen ia erabat, taldetxo batek topatu baitzuen parrila erabiltzeko modua eta bazkaritarako txokoa.



Voces del Ebro taldea entzun eta haiekin batera abesteko aukera izan zuten herritarrek Isla plazan. TXINTXARRI



Lagun talde batek topatu zuten Tximistarretako herri bazkaria aurrera eramateko modua. TXINTXARRI



Nekeari aurre egiten

Arratsaldeak goibel eta lasai itxura zuen, eta ez zeru lainotsuarengatik soilik: jaietako azken eguna izaki, depositoak erreserban zituzten herritarrek. Berehala eman zioten buelta tortillari, ordea; LOZET elkartearen azken erraldoi eta buruhandien konpartsa eta Irundik etorritako Burrunba elektrotxaranga arduratu ziren horretaz.

Ezpelur taldeko dultzaineroekin batera abiatu zen konpartsa, ohi bezala, Blas de Lezo kaleko egoitzatik. Bidean zehar egindako geldaldi bakoitzean familia gehiago batu ziren, ilara eder askoa osatu arte. Erraldoiak dantzan ikusteaz gain, nahi izan zutenek izaki liluragarri horien barrenak ezagutu zituzten, LOZETeko kideen laguntzarekin. Bitartean, buruhandiak arineketa ibili ziren eurak zirikatatu zituzten haurren atzetik korrika.

Helburu garbi batekin etorri zen Burrunba elektrotxaranga herrira: nekearen eta ajearen aurkako sendagaia izan eta lasarteoriatarrek berriz dantzan jartzera. Lortu zuen, eta nola, gainera: lauzpabost abesti jo zituztenerako kuadrilla ederra zebilen haien inguruan, adin guztietakoak. Izan zen behatz lodi, indize eta anularra altxa eta rockeroen keinu ezagunena egin zuen gaztetxorik ere. Sari gisa, etxeko txikienei zuzendutako abestien moldaketa ederrak ere jo zituzten Bidasoatik etorritako musikariek.

Bestalde, Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) eskualdeko futbito txapelketa aurrera eraman zuen Uzturre plazan. Antolatzaileek nabarmendu dute "giro ederra" izan zela kantxan eta eskerrak eman dizkiete talde parte hartzaile guztiei.

Azkenik, hurrengo eguneko lanak aurreratze aldera, Sorgin Jaiak-eko zenbait kide txosna gunea desmuntatzen hasi ziren: iluntzerako, mural osoa kenduta zuten, eta, ezkerreko alde, itxita.



Erdigunean barrena ibili zen erraldoi eta buruhandien konpartsa. TXINTXARRI



Ezpelur dultzainero taldeko kideak lagundu zuten erraldoi eta buruhandien azken konpartsa. TXINTXARRI



Buruntzaldeko GKS futbito txapelketa aurrera eraman zuen Uzturre plazako kantxan. BURUNTZALDEKO GKS



Burrunba elektrotxarangak herritarren festa gogoa piztu zuen azken arratsaldean. TXINTXARRI



Festetako seigarren eguna izanik ere, dantzatzeko gogoa zuten oraindik lasarteoriatarrek. TXINTXARRI



Azken dantza gaua

Herritar ugari bildu zen Atsobakar auzoko zelai zabalean su artifizialen erakustaldi koloretsua ikusi eta sanpedroei agur esaten hasteko. Euri tanta batzuk jausi ziren arren, eguraldiak eutsi zion, eta ez zuen jarduera zapuztu. Emanaldi hori amaituta, dantzara joan ziren herritar asko eta asko; adin eta gustu guztien neurrirako eskaintza baitzegoen azken dantza gauerako.

Gaztetxoek Oriarte Landaberri institutuko estalkian elkartu ziren, eta DJ Nemuxen musikarekin egin zuten parranda. Musika elektronikoa eta reggaetoi-ak hartu zuen aipatu eremua, eta gogotsu astindu zituzten gorputzak bertan bildutako gazteek.

Nagusienek, aldiz, bi aukera izan zituzten. Ibai Berriak herriko taldearekin saltsa eta kumbia doinuak dantzatzerara joan ziren zaharrenak, eta dantzarako trebetasun handia erakutsi zuten denek ala denek. Izan ziren lerroan, bata bestearen ondoan jarrita gorputza mugitzera animatu zen talde bat ere. Euskal musika zaleek, berriz, hitzordu erakargarri bezain animatua izan zuten Okendo plazan. Gozategi talde entzutetsuak kontzertu bikaina eman zuen, eta ederki gozatu dute bertaratu zirenek. Betiko kantu ezagun askorekin girotu zuten plaza; entzun ahal izan ziren, besteak beste, *Pakia beyau*, *Gogoratzen* eta *Nor Nori Nork* abestiak. Eskuetatik helduta, kalejira ederrak egin zituzten tarteta zaleek, eta arin-arin eta fandagoak ere bikain dantzatu zituzten eskumuturrak goratuta.

Bien bitartean, Kale Nagusian batu ziren haurren atzetik korrika ibili ziren aurtengo sanpedroetako azken lau zezensuzkoak. 23:30erako zuten irteteko ordua zehaztuta, baina ordu erdi lehenago jendetza batu zen udaletxe zaharraren parean. Eraikin horren arkupeetan lasterka egitera irteteko zain zeuden zezensuzkoak ikustera gerturatu ziren herritar ugari. Behin ordua iritsita, eta nekeak alde batera utzita, etengabe aprobe txatu zuten gaztetxoek horiengandik ihesi eta jolasean aritzeko tartea.



San Pedro Jaiak agurtzen hasteko suak ikustera batu ziren herritarrek, Atsobakarren. TXINTXARRI



Nerabeek DJ Nemuxekin izan zuten azken parranda egiteko aukera. TXINTXARRI



Gozategi talde entzutetsuarekin ederki gozatu zuten herritarrek Okendo plazan. TXINTXARRI



Lasarteoriatarrek Ibai Berriak musika taldearen abestiak dantzatzen, Isla plazan. TXINTXARRI



Gaztetxoek zezensuzkoarengandik ihesi korrika aritzeko aukera ere izan zuten, jaiak amaitzeko. TXINTXARRI



Kanpainaren eraginez, gehiago bildu dute

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du aurtengo maiatzean 73.270 kilo hondakin organikoaren zatiki jaso dituela, iazko hilabete berean baino %60 gehiago. Edonola ere, zehaztu du birziklatze tasa %7,5 soilik igo dela tarte horretan; %51,5ekoa izan da

Txintxarri

"Nabarmen" hobetu da hondakin organikoen zatikiaren gaikako bilketa, Lasarte-Oriako Udalaren hitzetan. Maiatzean 73.270 kilo bildu dituzte, iazko tarte berean baino %60 gehiago (45.790 kilo). Hala ere, zehaztu du birziklatze tasa 7,5 puntu baino ez dela igo eta sortutako zabor guztiaren %51,5ekoa izatera iritsi dela urteko bosgarren hilabetean.

Birziklatzeari buruzko kanpaina balioan jarri du udalak eta eskerrak eman dizkie egunero hondakin guztiak "behar bezala" bereizten dituzten herritar eta establezimenduei. Era berean, barkamena eskatu du, zenbait etxebizitzatan arazoak izan dituztelako edukiontzia irekitzeko txartel elektronikoekin.

Maiatzeko datuak onak izanagatik, kanpainaren sustatzaileek nabarmendu dute "gehiago" nahi dutela. "Hondakin organikoak sortzen ditugun guztien %40 dira, eta horien herena baino ez ditugu bereizita biltzen. Hobetzeko asko dugu". Oraingoz, edukiontzi marroiak (organikoarenak) baino ez dauka sarraila, eta ez dute zehaztu errefusaren kontenedoreak noiz izango duen,



Hipodromo etorbideko edukiontzi grisak eta marroia. TXINTXARRI

nahiz eta aurreratu duten udaren ostean izango dela. **G a u z a k h o r r e l a**, lasarteoriatarren parte hartzea bultzatzen segiko dute, gutxieneko birziklatze tasen konpromisoak betetzeko (%55 gutxienez 2025ean, eta, 2030ean, %60).

Norabide horretan, udalak zehaztu du "oinarizko informazioa eta baliabideak" ematen jarraituko duela: poltsa konpostagarriak makinetan eta jarduera ekonomikoetarako nahiz

elkarteetarako zorro handiak, udaletxean.

Otsail amaieran iragarri zuen Lasarte-Oriako Udalak birziklatzea sustatzeko kanpainari ekingo ziola. Artelatzen enpresa arduratu da herritarrek kontzientziatzeaz, Elizatze plazan zenbait hilabetez jarritako postuan bizilagunei arreta eginda. "Ezinbestekoa" den jarrera aldaketa bat sustatu nahi dute, adierazle hori handitu eta "herri jasangarriago bat izateko" urratsak egiteko.

Sute bat Zubietako erraustegian

GuraSOS elkarteak salatu duenez, hilaren 4an sute bat izan zen Zubietako erraustegian, bolumen handiko hondakinen hobian. GHK kontsultazioaren arabera, 07:45ean piztu eta 10:00etarako kontrolatuta zuten.

Gertatutakoaren aurrean, elkarte horrek eskatu du esateko zein izan den erre zen materiala eta zein sustantzia "arriskutsu" igorri zituen airera.



Hilaren 4ko sutearen irudi bat. GURASOS



Hilaren 26an egingo dute Santa Ana parodia, Okendo plazan, 20:30ean. TXINTXARRI

Hilabete honetan ere izango dute zer egin lasarteoriatarrek

Kale ikuskizunek eta Santa Ana egunaren harira antolatutako jarduerak ardatzen dute udalaren kultur agenda

Txintxarri

Hilabete honetako jarduera kulturalen berri eman du Lasarte-Oriako Udalak. Emanaldien zerrenda aurreko hilabeteetako baino laburragoa izanagatik, herritarrek izango dute zerekin gozatu: besteak beste, kaleko ikuskizun zenbait eta Santa Eguneko parodia daude programan.

Lehen emanaldia gaur egingo du Eidabe konpainiak, ostiralez, hilak 7, Okendo plazan, 19:00etan. *Gora bihotzak* kale antzerkia ekarriko du herrira.

Egitarauaren arretaguneetako bat da Santa Ana egunaren harira egingo dituzten jarduerak. 38. Santa Ana Artisanu Azoka izango da horietako bat, hilaren 23an, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Okendo plazan eta inguruetan. Hiru egun geroago, 26an, ospakizun egunean bertan, urtero legez, ikasturteko hainbat kontu errepasatuko dituzte umore ukitu batekin, parodian. 20:30ean hasiko da, Okendo plazan. Sarrera doakoa izango dela adierazi dute antolatzaileek.

AKATSAK ZUZENTZEN



TXINTXARRI

Sanpedroen eta Sorgin Jainen aurreko zenbakian, 1632.ean, akats bat egin genuen Maider Oartzabal Ziganda lasarteoriatarrari egindako elkarrizketan, hilaren 28ko betereanoen danborradan aurkeztu zuten *Lasarte-Oriako ereserkia*-ren koreografiaren harira argitaratutakoan. Idatzi genuen ATLO elkarteko zuzendaritza taldeko kideetako bat Idoia Telleria dela, baina datu hori ez da zuzena. Bere ahizpa Olatz Telleria Maritxalar izan zen Oartzabalekin harremanetan jarri zena proposamen hori egiteko.



Buruntzaldea IKTko alebinak Euskal Herriko txapelketan lortutako dominekin. BURUNTZALDEA IKT

Lasarte-Oriako igerilariak domina uzta ederra bildu dute

Gipuzkoako txapelketan, alebinen Euskal Herriko txapelketan zein Espainiako txapelketan lehen postuan izan dira herritarrak

Txintxarri

Uztaileko lehen asteburuan atsedean izan bazuten ere, hiru hitzordu garrantzitsu izan zituzten herriko igerilariak ekainaren 24an eta 25ean. Domina eta marka ugari lortu zituzten guztietan.

Infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Udako Gipuzkoako txapelketa lehiatu zuten. Bidasoa XXI taldeko kide den Leire Martin nagusi izan zen absolutu mailan. Bakarkako lau probetan zein erreleboetako saioetan podiumeko koska garaienera igo zen herritarra.

Maila horretan Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberriak brontzezko domina jantzi zuen. Junior mailan, aldiz, bi urre kolkoratu zituen gazteak.

Taldekoide June Lopez ere podiumeko bigarren mailara igo

zen 200 m. bizkar proban, eta, 4x100 m. libre zein lau estilo saioetan, hirugarren izan ziren taldeko neskek.

Alebin mailan, Euskal Herriko txapelketari egin zioten aurre herriko igeriketa taldeko Iñaki Garciak, Mario Amantegik, Ibon Elolak eta Oihan Matutek. Bakarka urre bat, bi zilar eta lau brontze jantzi zituzten. Erreleboetan bi zilarrezko eta brontzezko bat eskuratu zituzten. Horri guztiari esker, taldea laugarren izan zen sailkapen orokorrean, podiumetik gertu.

Nahia Zudairek, berriz, bi urrezko eta brontzezko bat eskuratu zituen Kluben arteko Igeriketa Egokitutako Espainiako Txapelketan, Cadiz, Andaluzian. 400 m. libre proban gainera S8 mailako Espainiako errekorra egin zuen.

Martinek eta Furundarenak dominak jantzi dituzte

23 urtez azpiko Espainiako txapelketan zein 16 urtez azpiko Euskadiko txapelketan igo dira podiumera

Txintxarri

Ostadar Atletismoko Naroa Furundarenak eta Helene Martinek hitzordu garrantzitsuak izan zituzten asteburuan eta biak izan ziren podiumean.

Naroa Furundarena 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan lehiatu zen, Tarragonan. Jauzi hirukoitzeko proban zilarrezko domina jantzi zuen herritarrak.

Kirolariak zapore gazi-goza du, ordea. Espoo hirian, Finlandian jokatu den Europako txapelketarako gutxienekoa (13,30 m.) egitea zuen helburu talde urdin-beltzeko kideak. Azken jauzian 13,33 marka egin arren, gehiegizko haizearengatik ez da baliagarria izango eta ezingo da bertara joan.

Helene Martin, aldiz, xabalina jaurtiketako Euskadiko txapeldun berria da 16 urtez azpiko mailan. Gasteizen jokatu den proban,



Furundarena, podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

bigarren saiakeran 29,58 metroko marka egin eta txapelketako buru jarri zen.

Jaurtiketa gainditzen saiatu arren ez bera, ezta aurkariak ere ez ziren gai izan eta herritarrak eraman zuen urrezko domina.



RFEPIRAGUISMO

Europako Jokoetan, ezin

Ekainaren 29tik hilaren 2ra, Europako Jokoak lehiatu dituzte, Krakovian. Piraguismoko proban, Maialen Chourraut herritarra izan zen borrokan. Lasarteoriarrak eslalom modalitateko K1 mailan zein kayak krosean egin zuen arraun, Kolna kanalean. Sailkapeneko probak gainditu arren, ez batean ez bestean ez zen finalera sailkatu.

Lugañene, Coruñan garaile

Coruñan hasi dute denboraldia Euskotren Ligako traineruek. Aiora Belartietak (Donostia Arraun Lagunak) eta Intza Fernandez (Hondarribia Bertako Iggogailuak) herritarrak bertan izan dira lehian. Itsasoaren egoeratik lehen jardunaldia bertan behera geratu ostean, VI. Bandera Cidade da Coruña jokatu dute. Donostia Arraun Lagunak-ek lehen postua eskuratu du eta Hondarribia Bertako Iggogailuak bosgarren izan da.



EUSKOTREN LIGA / AITOR ARRIZBALAGA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

DONOSTI CUP

Ostadar eta Texas Lasartearra elkartetako hainbat talde Donosti Cup jokatzeko ari dira. Zeinbat partida ere Michelin kirol gunean jokatuko dira. Ostiraletik igandera. Egun osoa. Michelin kirol gunea / Gipuzkoan zehar.

IGERIKETA

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek Euskal Herriko txapelketa lehiatuko dute.

Ostiraletik igandera. Mendizorrota kirol esparrua, Gasteiz, Araban.

ATLETISMOA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTKo Alex Alkain 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan parte hartuko du.

Larunbata eta igandea. Gijon, Asturiasen.

ARRAUNA

EUSKOTREN LIGA

Euskotren Ligako ontziek VII. Fabrika bandera jokatu dute.

Larunbata. 17:30. Donostian.

III. Edinor banderari aurre egingo diote ligako eskifaiek.

Igandea. 11:25. Zierbana, Bizkaian.

KAE 2

XIII. Kirol Txartela bandera lehiatuko dute ligako bigarren jardunaldian.

Larunbata. 11:00. Donostian.

PILOTA

SALBATORE TXAPELKETA

Intzako Peru Urdepilleta eta Haritza Diaz de Gereñu Salbatore txapelketako jardunaldia jokatu dute.

Larunbata. Getarian.

ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko jardunaldia lehiatuko dute.

Igandea. 17:30. Hipodromoa, Donostian.

LASTERKETA

SANTAMAÑA KROS IGOERA

Hainbat herritar eta herriko taldeetako kidek Asteasuko Santamaña kros igoeran egingo dute lasterketa.

Igandea. 10:30. Asteasun.

EHUN MILIAK

Ehun Milak Ultra traila, G2handiak Goierri trail eta Murumendi maratoia lehiatuko dira.

Ostiraletik igandera. Beasainen.



RUFINO REKALDE

Zikuñaga Papelera, lehian

Intzako Peru Urdepilleta, Haritza Diaz de Gereñu eta Jon Pello Artetxe pilotariak bikotekako Zikuñaga Papelera txapelketa jokatzeko ari dira. Urdepilleta eta Diaz de Gereñu jubenil mailan lehiatuko dira bikote modura; Artetxek, aldiz, Oiarpeko Ugalderekin osatu du bikoa. Lehen jardunaldia jokatu dute eta zorte ezberdina izan dute. Jubenilek garaipena erdietsi zuten ozta-ozta 18-17; seniorretan 18-15 galdu zuten. Urdepilleta eta Diaz de Gereñu Getariako Salbatore torneoaren ere ari dira lehiatzen.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Oier
Zorionak Oier! 6 urte gure egunerokoa algaraz, ideiez, kontuz, musikaz... betetzen. Muxu goxo bat etxeko txiki haundienarentzat!!



Lier
Zorionak Lier!!! Ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat.



Jare
Zorionak Jare!!!! Primeran pasa zure egunean. Muxuak.



Iñigo
Zein ederra izango den gaurko hamaiketakoa!! Badakigu sabela beteta etorri zarela, baina gaurko patata tortilla zure esku! Jaietan galdutako indarrak errekuperatzeko bikaina! Zorionak lankideen partetik!!

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen dut Urdaneta eraikinean, beheko solairuan. Sarbide eroso. Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabilta. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663 93 51 76 (Irati)

LANA

ESKAINZA

Jalgi Kafe Antzokiak zerbitzaria behar du, astean

20 ordu lan egiteko eta, ahal dela, berehala hasteko. Harremanetarako zenbakia, 696 55 29 25.

Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaiak eskainiko dituzten irakasleak behar dira

ikasturte osorako. Interesatuak bidali CVa info@zitek-akademia.com helbidera.

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. Kotxea

izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo

nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo

nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gazte 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketari...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak

Egoitz Epelde, Nora Navarro,
Nikola Iraola, Xuban Urdaleta,
Sergio Hernandez, Ander Hazas,
Endika Merchan eta Gorka Morales.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN



LASARTE-ORIA Kontzertua. Coral de Soria koruak emanaldia egingo du Ama Brigitarren komentuan, gure herriko Alboka Abesbatzako lagunak bisitatzera etorri dela baliatuta. Gauzak horrela, bi taldeek egitarau anitz eta interesgarri bat prestatu dute. Kontzertua ikusteko sarrerak doakoak dira. Bihar, hilak 8, larunbata, Ama Brigitarren komentuan, 19:00etan.

OSTIRALA 7

LASARTE-ORIA Antzerkia

Eidabe konpainiak *Gora bihotzak* kale antzezlaren emanaldia egingo du. Sarrera doakoa izango da. Lasarte-Oriako Udalak bultzatutako Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruko emanaldia izango da, hilabeteko lehenengoa.

Okendo plaza, 19:00etan.

LARUNBATA 8

LASARTE-ORIA Kontzertua

Coral de Soria korua Alboka Abesbatza bisitatzera etorri denez, bi taldeek kontzertua emango dutela iragarri dute. Egitarau anitz eta interesgarri bat prestatu dute. Sarrera doakoa izango da. Ama Brigitarren komentua, 19:00etatik aurrera.

ASTELEHENA 10

LASARTE-ORIA Parodia

Ttakun Kultur Elkarteak jakinarazi du Santa Ana parodiarako paperak banatuko dituztela saiora bertaraten diren aktoreen artean. Entseguak egun horretatik bertatik 14ra eta 17tik 21era egingo dituzte, kultur

etxeko auditorioan, 18:00etatik 20:00etara.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etatik aurrera.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Antzerkia

Hortzmuga Teatroa konpainiak *Agurea, urpekaria eta itsasoa* kale antzezlaren emanaldia egingo du. Sarrera doakoa da. Lasarte-Oriako Udalak bultzatutako Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruko emanaldia izango da.

Okendo plaza, 19:00etan.

OSTEGUNA 20

LASARTE-ORIA Zinema

Udako zinema zikloaren barruan eta Ihtien elkartearekin elkarlanean, eragile horrek duela gutxi estreinatutako *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarreragatik ez dute ordaindu beharko ikus-entzuleek.

Okendo plaza, 22:00etan.

OSTIRALA 21

LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Jon Zabal magoak *Nexo* izeneko

ikuskizuna egingo du, Lasarte-Oriako Udalak bultzatutako Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruan. Sarrera doakoa izango da.

Okendo plaza, 19:00etan.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Azoka

Hilaren 26ko Santa Ana egunaren bezperetan, 38. Santa Ana Artisau Azoka aurrera eramango dute. Postu ugaritan produktuak ikusi eta erosteko aukera izango dute feriarak bertaraten direnek.

Okendo plaza eta inguruetan, 10:00-14:00 eta 17:00-20:00.

ASTEAZKENA 26

LASARTE-ORIA Parodia

Urtero legez, Santa Ana eguneko parodia egingo dute. Sarrera doakoa izango da.

Okendo plaza, 20:30ean.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Dantza

Ertza dantza taldeak *Otempodiz* izeneko ikuskizuna plazaratuko du, XIX. Dantza Zirkuituaren barruan. Sarrera doakoa izango da.

Okendo plaza, 19:00etan.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz



**Zure iragarkia
jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin
harremanetan!**

**Deskontu
bereziak
herrikoentzat!**

ESKATU TARIFAK:
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66 



Eskuratu

Lasarte-Oria 2023

1.000€eko saria
Eta zuri tokatzen bazaizu?
Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian
uztailaren 3tik 16ra,
eta parte har ezazu
erosketa bonoen zozketan

1.000€

eta gastatu 3 ordutan

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

ALBA MODA	FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA	BIZKER RÓTULOS - IMPRENTA
MERCERÍA ARITZA	BAR LASARTE BERRI	CENTRO DE MASAJE KIMA
ARKUPE TABERNA	VIÑA DEL MAR KAFETEGIA	CALZADOS LEDER
BIDEO LAGUNAK	OLA ENMARCACIÓN	DULCE TENTACIÓN
CARREFOUR EXPRESS	LOTERÍA IZAGUERRI+C	IMAGINE JANTZI DENDA
CLINICA DENTAL ALDAZ	BERASATEGI KAFEAK	EGUZKI TABERNA
NOGUES MODA	PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA	BAR-CAFETERÍA BUS
ELECTRICIDAD ARREGUI	ADMINISTRACIÓN DE FINCAS MILLA	NORTH TEAM NUTRIZIOA
FERRETERÍA SUKOA	NATURHOUSE	HIRU ALDETA TABERNA
GESTORÍA BETELU	ORUE BOTIKA	SORAYA GALLEGU MICROPIGMENTACIÓN
MERCERÍA OLMÍ	PELUQUERÍA MARBELL	BAR ORIA-TXIKI
URRIZOLA MERTZERIA	LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL	PELUQUERÍA MANI'S
MULTIÓPTICAS LASARTE	MASAJISTA RAKEL	ADMINISTRACIONES BARDAJI
ÓPTICA LIZARRI	OIHANA ESTETIKA	HAUNE INTERIORISMO
ORBELA EKODENDA	PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA	ZUBIETA MOTOR
ORMAZABAL LORADENDA	HALCÓN VIAJES	GIMNASIO SAITO
PERFUMERÍA MAIANE	CLÍNICA PODOLÓGICA AMAIA OLONDRIS	PELUQUERÍA Y ESTÉTICA SPLENDOR
SANTANA INFORMÁTICA	SILVIA LUIS ARBIZU ADMON. DE FINCAS	TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK
VENTANAS ALCAR	ACADEMIA DE INGLÉS STRATFORD	AMA YOGA
VENTANAS ISU LEIHOAK	PELUQUERÍA BEA	BOTE TATTOO
ZAPATERÍA ITURBE	DECO 75 TEXTIL HOGAR	HERRIKO ETXEA
OSTEOPATÍA NOELIA CALERO	INMOBILIARIA RK	FARMACIA ELI LASA
CAFÉ-BAR BUENETXEA	ADATS ORRAZTEGIA	PLAN B KAFETEGIA
ARAETA SAGARDOTEGIA	ÓPTICA IRIGOYEN	MUEBLES ELBUME
AVENIDA TABERNA	MABEL MODA	ARIMA GASTROTABERNA



Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO